

JOSU SANTESEBAN



Slavoj Žižek

London Review
of Books (2012ko
maiatzak 25)

»
 Une honetan
 Syrizarak ordezkatzeko
 duen 'heresia' berri
 batek bakarrik salba
 dezake Europaren
 ondaretik salbatzea
 merezi duena:
 demokrazia,
 herritarrengan
 sinestea,
 berdintasuna,
 solidaritatea
 eta abar
 »

Salba gaitzazue salbatzaileengandik

Greziako hauteskundeen hurrengo itzulia ekainaren 17an da. Europako establishmentak ohartarazi digu hauteskunde horiek hil ala bizikoak direla: ez bakarrik Greziaren patua, agian Europa osoarena egon liteke jokoan. Emaizta batek –emaizta onak, hala diote– murrizketan bidezko prozesu mingarri baina beharrezkoak aurrera jarraitzeko bidea emango luke. Alternatiba – 'ezker muturreko' Syriza alderdiak irabaztea– kaosaren aldeko botoa litzateke, ezagutzen dugun (europar) munduaren amaiera. (...)

Ekainaren 17an, benetako aukera bat egongo da: alde batean establishmenta (Demokrazia Berria eta Pasok), bestean Syriza. Eta, benetako aukera bat eskaintzen den bakoitzean gertatzen den moduan, establishmenta izuak hartuta dago: kaosa, pobrezia eta biolentzia etorriko dira, diote, aukera txarra eginez gero. (...)

Syriaz irabaziz gero, Europako establishmentak nahiko du modurik gogorrean ikas dezagun zer gertatzen den, norbait eteten saiatzen baldin bada Bruselako teknokrazia eta etorkinen kontrako populismoak elkarren konplizitatearekin sortu duten ziklo gaiztoa. (...)

Une honetan Syriaz ordezkatzeko duen 'heresia' berri batek bakarrik salba dezake Europaren ondaretik salbatzea merezi duena: demokrazia, herritarrengan sinestea, berdintasuna, solidaritatea eta abar. Syriza garaitzen badute geratuko zaigun Europa 'Asiar balioak dituen Europa' da –zeinak, noski, ez daukan zerikusirik Asiarekin eta bai ordea gaur egungo kapitalismoak demokrazia eteteko daukan joerarekin–.

Hori da gizarte demokratikoetan 'boto askea' irauarazten duen paradoxa: pertsona bat libre da aukeratzeko, baldin eta aukera ona egiten badu. Horregatik, aukera txarra egiten denean (Irlandak Europar Batasuneko konstituzioa baztertu zuenean bezala), hautu hori akats gisa hartzen da, eta establishmentak berehala eskatzen du prozesu 'demokratikoa' errepika dadila akatsa zuzentze aldera. George Papandreouk, Greziako lehen ministroak, iazko urtearen amaieran euroguneko erreskate akordioaren inguruko erreferenduma proposatu zuenean, erreferenduma bera baztertu zuten aukera faltsua balitz bezala.

Bi istorio nagusi daude hedabideetan Greziako krisiari buruz: istorio alemaniar-europarra (greziarrak arduragabeak, alferrak, zarrastelak, zergen iheslariak eta abar dira, eta kontrolpean hartu behar ditugu, finantza-diziplina irakasteko) eta istorio greziarra (gure subiranotasun nazionala Bruselak inposatutako teknokrazia neoliberalak mehatxatzen du). Greziako herritarren kinka larriari entzungor egitea ezinezko bihurtu zenean, hirugarren istorio bat agertu zen: greziarrak orain laguntza humanitarioa behar duten biktima gisa aurkezten zaizkigu, gerra batek edo katastrofe natural batek herrialdea jo izan balu bezala. Hiru istorio horiek faltsuak diren arren, hirugarrena da seguruenik higuigarriena. Greziarrak ez dira biktima pasiboak: gerran daude Europako ekonomiaren establishmentarekin eta elkartasuna behar dute beraien borrokan, gure borroka ere bade-lako.

Grezia ez da salbuespena. Potentzialki mugarik gabe aplikatuko den eredu sozio-ekonomiko berri baten laborategi nagusienetakoa da: despolitizatutako teknokrazia bat, non bankariek eta bestelako adituek baimena daukaten demokrazia suntsitzeko. Grezia bere uestezko salbatzaileetatik salbatuz, Europa bera salbatuko dugu.

